Euskal kultura gaur

Bide zuzenetik sartu al-gera? Zerbait esan diteke. Gure gaste ikasiak esnatuak ikusten ditugu. Euskal-kezka ikasleen artean bizi agiri zaigu. Nun-nai. Euskaferri barruan bezela kanpoko Ikastetxeetan, gure ikasle gazteok pizturera bat dakarte sail onetan.

Aurren ikastolak ere, gorakada bizia ta aize aundia dute beren laguntzailiren bultzadaz. Euskal andereñoak ugaltzen eta alkartzen ari dira maiz. Eta azkenik, gure Industri-Langintza batzuek ere konturatu dira premi ontaz, eta beren laguntza eskeintzen diote gure kulturari.

Abendu barruan bi Euskal-Jai antolatu dira, illaren 4'an eta 18'an.

Jendea errez agertzen da onelako jaietara. Victoria Eugenia gutxitan bezela beteitzen zaigu. Poztu beharra degu, beraz, alde ontatik. Esta egun auetan, kalkukeria azaltzen; baizik aize berri batek bultzata berezia, gure jakintza ta jolas ta kantetan, alako yayotasun berezia sortzen zaigu. Ba-zan ordua gure jende ta erria esnatzeko.

Baiña guzi au, asiera besterik ezta. Oker jokatuko genduke, beraz, ontan geldituko ba-giña. Ez degu geldiunerik bear; aurrera ta aurrera jo bear degu asitako bidean. JAKINTZA letra aundiekin, naiz erderazko itzez KULTURA esan, berdin jotzen digu. Emen itzen azalari baiño mamiari giago begiratu bear diogu.

Gure Jakintza baztertua, ainbeste gizalditan lotan euki deguna, argitara atera bear degu. Azkoiti'ko ZALDUNAK izenez ezagutzen ditugun Peñaflorida Kondea ta aren lagunak, ederki igari zioten nundik komeni zitzaigun gure alegiñak eramatea. Aiek mutillak beren asoian. Bergara'ko Seminario zarrean, Irakasterik onenak inguratu ta aldi artan berak izan ziran munduko aurrelariak volframko izeneko metala arkitzen.

Gure eguneko jakintza bideak orrela aurreneko lekuan eraman baginitza, orain ere, guri begira jarriko genduke mundua. Ortik artuko luke gure erriak bere aunditasuna jakite-munduan.

Eldu dezalogun, ba, gure lanari. Lana eten gabe, lana alkartasunean batez ere. Unibersidadetan zabiltzaten euskal gazteok, Erdi Irakaskintzetako Ikasle taldeok bildu zaitezte jakiteko gose aundiz, baiña lenengo jakitea, gure erriaren ezaguera bear degu. Gure etxean sakondu bear degu lurra.

Gure Kondaira, gure elezarrak, gure literatura, gure abestiak, gure jolas eta jokoak, gure etxeko aberastasuna eguzkitara atera dezagun.

Batez ere, au guzia au, gure izkuntzan erabilizen ikas dezagun. Urteak eta urteak daramazkigu, jakintza kontuak erderaz aitatzen. Euskal kontuak ere erderaz aitatu ol ditugu. Orrela, gure izkuntza esta gaitzen jakintza kontuetarako. Jakintza ori, gure erria esnatzeko, euskeraz aitatu ta erakutsi bear degu.

Gure aberastasunik aundiena, gure pitzirik erakusgarriena, EUSKERA da. Au daukagu arro nun-nai erakustekoa; au, kanpoko jendea arritzekoa. Gure inguru guzian, lengo izkera zar guziak latiñak jan zituan. Guk gere izkera bizirik ekarri degu gure egunetaraiño, Au da arrigarriena jakintsuen lrispidean.

Gure gazte ikasiok, beraz, bi lan dituzue zuen indarrak neurtzeko: zuen karrerako galak ongi ikastea ta bide batez euskeraren jabe egitea.

Gizaldirik gizaldi. Euskera murritzen etorri zaigu. Gure gurasoak, guk baiño euskera aberatsagoa zuten; guk, gaurko gazteok baiño euskera oben erabilizen degu. Zuen lana, Euskera bere betean ikastea ta erabiltzea izango dezue. Or goldatu, or jorratu, or jaso.

Erdal girotan jaloak ta aziak zeratela ez uztu. Gure sasoian, gure errietan euskera zan nagusi, ta ala jator ateratzen zitzaigun izkera au. Gaur erdera kutsuz beteak zaudete, ta sarri zuen lanak erdera dariote, naiz ta euskal itzez aritu. Burua erderatan egosla dezue. Ez aztu au. Zuen burutapenak erderaz lenbizi egosten dituzue, ta gero euskeraz esan nairik, zuen joskera ta esaerak erdal-iturriko usala dariote. Orixe menderatu bear dezue.

Jakintzan mutildu gaitezen, beraz, eta jakintza au euskeraz ixuri dezagun jator eta nausiki. Ta lan oni bere indar guzia oso-osoan txertatzeko, alkartuta lan egin dezagun. GUZIOK BATASUNERA JOAZ GURE JAKINTZAREN ALDE.

Orra gure bide argia. Orra gaurko gizaldiaren urrezko ekiña. Gazteok! Etzazue saldu zuen erria. Eldu da KULTURA SASOIA.

Idazlarien laneko tresnak

P. LAFITTE

Idazlariak ez du de omni re scibili *idazten, badu bere idazkei berezia, eta nere iduriko artaz du leen-leenik griñatu bearra.*

Zertaz ere nai baitu zerbait esan, artaz argi bedi aalik obehiena. Irakur bitza eskura dezazken artazko liburu segurenak; irakur ez zear-mearka, bainan bai artoski eta ximendi, gero berak zerbait onik esatekotan.

Liburu oien lagun, ez da batere gaixto eskumenean izutea iztegi mota andana bat. Frantzian bedereziarki ditezke: Dictionaire biographique, Dictionaire historico-geographique, Dictionaire des Oeuvres universelles, Grand memento, Dictionaire encyclopédique, Dictionaire médical, Dictionaire du Cinéma, *eta abar.*

Apezek badukete Dictionaire de la Bible, Dictionaire theologique *eta olako.*

Baiñan gaiaz bestalde idazlariak on du mintzaiari buruz ere zerbait argibide izaitea.

Frantzesez idatzi nai duenak badu ortako errextasun ugaria: zer nai gramatika, eta gainerat: Dictionaire des synonymes, Dictionaire analogique, Dictionaire des proverbes, sentences et proverbes, Dictionaire des difficultatés de la langue française, *eta abar.*

Eskuaraz idatzi bear dugunek ez dugu orrenbeste errextasun: ala ere zonbaitek segurik eskupean ditugu Azkue, Lhande, Tournier, Mugica, Estornes-Lasa eta Mendizabal-en iztegiak, eta bestalde zonbait gramatika. Baiñan geienak guaurek bildu izkuntza edo esanera xerrenda batzu ditugu lagun oberenak.

Aitor dezagun gogotik onar genintzazkela erdaraz bezanbat idaz-tresna eskain balezazkigute eskuaraz ere. Ez gira oraiño ortan.

Eskasenik naski aspaldion Ibar-ek itzeman daukun "fraseologia vasca".

Anartean etxean eta auzoekin ikasi eskuara guti edo asko garbituz eta osotuz baderabilagu geientsuek, eta doatsu, izkuntza mear ori ez baitzaiku aazten!

GURE LITERATURA

Gaurko egoera etorkizuneruntz begira

Gure literatura ez dago geldi. Nekez baiña poliki dijoa aurreruntz.

Azken urte auetan etorkizuneruntz begira kezkaz ari diranen zenbait berri emango ditut. Guregandik sorturako lanetan oiñarrituriik; itzulpenak aintzat artzeke.

Argitaratutako lanetatik nabari zaigun ikuspena laburki adieraziko det. Mende bat atzerago gelditu ziran eraz dabizenak aipatzeke. Oien bideak gaurko gazteriari ezer esaten ez dielako, ta gazteria beretzen ez duan literaturak ez du etorkizunera begiratzen. Eta etorkizunaren bear ori askozaz larriagoa da ilduran dagoan izkuntza batentzat. Aurrerapen zale iñor izatekoan euskal idazleak izan bear dira, beren jokaeratik zer ikusi aundia dualako galzorian dagoan izkuntzak.

Euskal literaturan banakaren bat izan dira beren mendean ondo finkaturik jardun diranak; gutxi batzuk aurrerapenaren bidetik joan diranak; ta gure literatura iñork aintzakotzat artu ez badu, egon seguru, ori izan dala errazoi nagusia. Beraz, gaurkotasunezko lanetatik urri gabiltzala aitortu bear.

Lantxo onetan ez det naikoa leku gaurkotasunez ari diran guziak aipatzeko ta onen-onenak bakarrik aipatzera beartzen naiz, gaiñerakoeri parkamena eskatuz.

Ara saillik-sail zelan ikusten dedan:

POESIA, lizardi ta Lauaxeta'ren ondoren motel egoan, mugaz bestaldeko Iratzeder eta Mirande alde batera utzi ezkero. Ala ere izan dira zerbait arnasa eman diotenak, S. Mitxelena, N. Etxaniz eta abar. Egiz, Aresti'k urratu zuan lotura aren oskola, era berrietara begiratuz, batez ere *Harri eta Herri*'rekin (1964). Bere ondorengo frutuak, edo berarekin zer ikusia dutenak, lenagoko batzuek beren bide zaarrak baztertuz, eldu diote gizonaren konzientzia eragiñaz. Adibiderik onena izan da aurtengo «Agora»ko sariketa, presentatu ziran amar lanekin, ta beretariko lau zein baiño zein obeak, aspaldiko urtetan euskal poesian irakurri ditudanik onenak (ta uste det guziak ezagutzera eldu naizela). X. Lete, I. Sarasola, J. M. Lekuona eta J. Azurmendi'renak ziran. Agiri onekin itxaropentsu ikusten det euskal poesiaren etorkizuna.

SAIKERA lanetan ere izan degu frutu onik aski, bear bada sail onetan izango genituen lanik onenak, baiña baita gutxien ezagutzera eldu diranak ere: S. Mitxelena'ren *Unamuno ta abendats* (1958), Villasante'ren *Kristau fedearen sustraiak* (1962), «Jakin taldeak» eratutako *Europa* JEFPLI, Onaindia'ren *Gure bertsolariak* JEFPCI, «Egan» eta «Jakin»en argitaratu diran zenbait lan; baiña guzien gaiñetik, iturburu zarreko errotik gaurko saiakera berria, Axular berak bere denboran *Gero* bezela, Txillardegi'k gaindu du *Huntaz eta Hartaz* (1965) liburuarekin. Ta, saiakera degu arlo bat asko ta ondo landu bearrezkoa, gaiñerako literatura guziaren eragille izan ditzakealako.

TEATROA, jatorritik Justrautua datorkigu, lantzalle onik ez du falta izan Soroa, Barriola ta Alzagaren denboratik. Azken urte auetan Labayen, Montzon eta Larzabal'en eragiñ onurakor ernegarriak izan ditu. Baiña emen ere Aresti izan degu era berriko eragillerik burrukatuena: *Mugaldeko Tobera* (1961) eta *Etxe aberatseko seme galdua* (1962) gandik asita («Egan»en argitaratuak). Azkenengoz, «Jarrai» taldeak multikopiztaz argitaratua ta berak errepresentatua, ainbeste istoria tristeago sortu zuan Xalbador Garmendia'ren *Historia triste bat*, izan da gure antzerkia bear zuan maillara eraman duana, gaurko arnasa erantsiz.

NOBELA berriz oso gutxi landua da. Loidi'k asi zuan *Amabost egun Urgain'en* (1955) polizi nobelak Izeta'ren *Dirua galgarri* (1962) ta oraindik argitaratzeke diran Erkiaga'ren bat eta Peillen'ena izan zituan jarraille. Baiña gure errian ez da polizi nobelak sortzeko giro onik, kontrabanduan. Loidi ta Peillen'ek mugako prolemekin baliaturik egin zituzten beren lanak, orregaitik ez dira orren azalezkoak, fiktizioak. *Kresala* ta *Garoa* beste denbora batean gelditu dira. Badute eta izango dute beren giarra; baiña gaur, askoz gorago dauden nobelak ditugu, gaurkotasunari begiraturik eta nere ustean, oietariko batzuek, baita etorkizunari begiraturik ere; bi aundienak noski: Etxaide'ren *Joanakjoan* (1955) eta Txillardegi'ren *Leturia-ren egunkari ezkutua* (1957).

IPUIETAN, egilleak bere buruz asmatutako ipui berrietan, liburu garrantzizkorik bat bakarrik ezagutzen det: Jean Etchepare'ren *Mendekoste gerezian eta beste* (1963), idazle gaztea il ondoren argitaratua.

PERIODISMOAN, aspaldiko urte auetan gorakada aundia egin da *Herria* eta Z. ARGIA'ri eskerrak. Gaiñera, periodismoak eragindu euskera praktiku bat egitera, ulerterreza, errikoit, irakurleak konprenitzeko beartua, izkuntzari bear zuan bizkortasuna emanaz. Askoren artean Etienne Salaberry (So Egilea), Larzabal eta Rikardo Arregi goratuko nituzke.

IRIZLARI bezela ezin utzi aipatzeke L. Mitxelena eta P. Lafitte, beren jakindurizko aburu zorrotzak eraman gaitualako bide onera. Ikasi nai duanak adi egon bedi beren irizpideeri.

Idazlanetan gizona arkitu bear da, bere prolema, pentsaera ta sentiera gunez, norpere giroan erroturik etorkizuneruntza begira: positibismoa bizigarritzat duelarik. Gizonen konzientziak alkar billatu bear dira, idazle bakoitzak bere neurrira, al duan arte-bidez. Idazleak, bizi-giroaren taupotsak lortu bear ditu. Utsean ibilli gabe. Oiñarri gabeko ametsak ez dute literatura jazten.

Gure editorialak ere badute nun landu. Lan ederra egiten ari dira, baiña gaurkotasunezko lan bizieri leku gutxitxo ematen diote. Laster sortuko omen da, Donostian, era-berriko poesi liburueri tokia emango dion bat; betor ordu onean, ta gure literaturaren gorapena ikusi nai duenak abegi ona ta laguntza emango al dio. Saiakerazko liburuena ere bada asmoa. Bai bata ta bai beste bearrezkoak ditugu.

Aurreruntza zer egin? Etorkizunera begira lana egin nai duanak, aipatutako lanak ezagutu bear ditu. Era berriko idazle geiagoren premian gaude. Joandako urak ez du errotarik mugitzen.

Orrez gaiñera, batez ere irakurle geiago lortzeko, ditugun lan berezien ospea ta entzutea zabaldu bear degu. Ortarako, norpere errian iñor profeta ez danez, etxekoak aintzat artuko bagaituzte, bearrezkoa zaigu auzokoeri beren izkuntzan ezagutzera ematea ta lanik berezienak erderara itzuli bear genituzke, gaiñera zabalkunde aundia duan editorialen batek argitaratzeko. Bestela, gure tzkiitasunean itsumustuka jarraituko degu, gure erritarren artean ere begirapenik gabe.

Neri galdetuko balirake, itzultzeko premiazkoenak zeintzuk diran, duda gabe erantzungo nuke: *Leturia-ren egunkari ezkutua, Joanakjoan, Unamuno ta abendats, Huntaz eta Hartaz*, eta olerkari berrien antolojia bat. Ondore obeko begirapena izango genduke.

Idazleok, oraindik, gure alorrean azi ugari eragin bear degu uzta onak jasoko diran landarak erneko badira.

JUAN SAN MARTIN

DIZDIRAK

"FEDEA"

CARLOS SANTAMARIA

Gezurra dirudi, baiño ezta gezurra. Eskuetan degu gure berreungarreneko zenbakia, moldetegitik atera berria.

Nork sinistuko zuen, urte gutxi dala, euskal-astekari bat sortzeko posibilidadean?

Berreuneko muga au, gauza arrigarritzat artuko dute batzuek noski. Emen ezta batere mirarik, alajaña, fedez eta maitasunez egindako lanaren ondorea baizik.

Orain bai, orain guztiok ikusten degu, orduan ametsbat zirudiena, guztiz eginkorra zala. Baiñan asieran ikusi baiño len sinistu, gutxi izan ziran sinistu zutenak.

Baziran orduan, erri batzutan, euskaltzale jator zarrak begiratze ta irripar errukitsu batekin artzen ginduztenak, gure asmoz mintzatzera joan gintzaizkielarik.

—"Gizarajoak, alperrik zabiltzate —esaten ziguten— Duna galdua dago, euskera salbatzeko ez da ezer egitegorik".

Besteek berriz, itxaropen gutxi ematen ziguten, etorkizunaren aldetik.

—"Asi bai, asiko zerate, baiña aitu ere, bereala egingo zerate, muturrekoa ezarriko dizuete-ta".

Fede gutxiko gizon aiek amaika eragozpen ikusi arazten ziguten. Ta nola konponduko giñan diru, ta izkuntza ta politikaren aldetik; eta idazleak eta gaiak, astekari batean bear diran neurrian, nundik aterako genituen galdezka zebilzkigun bein ta berriz.

Burutik-burura euskeraz egindako berri-paper bat astero astero ateratzeko "ez gera kapabliak" esaten zidan adiskide jakintsu ta jator dedan batek.

"Obe izango litzake artikuloren bat erderaz egin, edo illean bein bukarrik ateratzea".

Baiñan guk —"auduces fortuna juvat"— itsuak bezelako, fededun porrokatuak izanik, aurrera jo genion gure asmakizunari, eta orren ondoreaz, lenengo berreunego mugan gaude orain.

(Badakigu, esan bearrik ez, amaika uts ta akats dauzkala gure periodikoak; ori besteek baiño obe dakigu eginkizun ontan sartuta gaudenok, bañan guztien laguntzarekin pixkanaka utsune guzti oiek zuzentzen joango dira, datozten urtetan, Jainkoa lagun).

Eta badakizute zergatik ekin genuen aurrera?

Badakizute zergatik taldetxo onek, eta batez ere bere sortzaille jatorra dan Aita Agustinek, aurrera jarraitu zuten, ain beltza horizontea jartzen zieten arren?

Fedea, fede pixka bat, zeukatelako.

Ah, zenbat gauza egin liteken fede apur bat euskaltzaletan balitz!

Fededun izan zaitezte, adiskideok!

Utzi aitzakiak, utzi sasi-prudenziaren kontsejutxarrak. Utzi, baitere, bakarkeria eta integrismoa, eta lanari ekin, bildurrik eta alperkerik gabe.

Saiatu, beintzat, zure biotzak eskatzen dizutena egiten. Eta ikusiko dezute, biotzak, garbi danean beti arrazoia daukala.